

Antoine d'Abbadie Hegoaldean (1879-1895)

(Antoine d'Abbadie in the peninsular Basque
provinces (1879-1895))

Toledo Lezeta, Ana M^{a*}

Deustuko Unibertsitatea

Donostiako egoitza

Mundaiz, 50

20012 Donostia

* Euskaltzainh urgazlea

Eusko Ikaskuntza

Antoine d'Abbadieren mezenazgopean eratutako Lore-Jokoek 1879an igaro zituzten Pirineoak. Nafarroako Elkargoaren laguntzarekin Elizondon ospatu zirenekin ematen dio hasiera Hegoan barrena egin zuen ibilbideari (Irun, Markina, Urnieta, Doneztebe, Iurreta, Azpeitia, Bera, Areatza). Iparretik Hegorako bidea beren oinarritzko ezaugarriak gordeaz burutuko dute: literatur lehiaketa baneratzten duten festak dira. Eta festaren bizkarrezurra norgehiagokaren gain eraikitzen da: bertsolari, dultzainero, ezpatadantzari, trontzalari, irrintzilari, aureskulari, pilotari, korrikalari etab. neur daitezke egitarau desberdinetan. Honenbestez, poesia festaren osagai bihurtzen dute.

Giltz-Hitzak: Lore-Jokoak. Lehiaketa. Saria. Folklore. Jai. Mezenazgoa. Euskara. Poesia herritarra. Jendaurre-koa. Erromantizismoa.

El tránsito del País Vasco continental al peninsular de los Juegos Florales instituidos y patrocinados por Antoine d'Abbadie se produce en 1879. Es en Elizondo donde con la colaboración de la Asociación Euskara de Navarra comienza la andadura que le llevará por diversas localidades: Irún, Marquina. Urnieta, Santiesteban, Iurreta, Azpeitia, Vera del Bidasoa, Villaró. Sin embargo, el tránsito no supuso ninguna modificación sustancial en el desarrollo de dichos Juegos: siguen siendo manifestaciones de carácter festivo que incluyen un certamen literario. La competición es el elemento clave. Bertsolaris, irrintzilaris, pelotaris... y poetas van compitiendo cada uno en su ámbito.

Palabras Clave: Juegos Florales. Concurso. Premio. Folklore. Fiesta. Mecenazgo. Vascuence. Poesía popular. Audición pública. Romanticismo.

Antoine d'Abbadie a fait débiter les Jeux floraux qu'il amena d'au-delà des Pyrénées en 1879. Avec la collaboration de l'Association "Euskara" de la Navarre, ce fut à Elizondo qu'ils ont eu lieu pour la première fois, pour passer après à Irún, Markina, Urnieta, Doneztebe, Iurreta, Azpeitia, Bera, Areatza. Cependant, cet itinéraire n'a point supposé aucune modification substantielle dans le développement des dits Jeux floraux: ceux-ci ont toujours été des fêtes dans lesquelles une compétition littéraire avait toujours lieu. Compétition c'est le mot clé. Les bertsolaris, les irrintzilaris, les joueurs de pelote... et les poètes passent en compétition, chacun dans son domaine.

Mots Clés: Jeux floraux. Concours. Prix. Folklore. Fête. Mécénat. (Langue) basque. Poésie populaire. Audition (publique). Romantisme.

Mende laurden luzean Iparraldeko herriren bat Lore-Jokoen ospa-leku izendatu ondoren, lehenbiziko aldiz 1879. urtean hautatzen du Antoine d'Abbadiek Hegoaldeko herri bat ospakizun hauetarako. Nafarroan, Elizondon, hasiko du Hegoko zenbait herritan barrena egingo duen ibilbidea: Irun, Markina, Urnieta, Doneztebe, Iurreta, Azpeitia eta Bera. Areatzan 1897an ospatu zirenetan d'Abbadie andereak ordezkatu zuen, Euskal Herriko Lore-Jokoen sortzailearen heriotzak galerazi ez zezan bere festen jarraipena.

Beren oinarrizko ezaugarriak gordeaz egingo dute Lore-Jokoek Iparretik Hegorako bidaia. Iparrean literatur lehiaketa baneratzten zuten festak ziren eta honela jarraitu zuten Hegoan. Txapelketa desberdinak bide sortzen da festa; txapelketa horietako bat literarioa da. Horregatik diogu funtsean ez zela eman aldaketarik: literatur lehiaketa eta beste lehiaketa batzuz osatzea konstante gordetzen den neurrian; gero, jakina, lehiari jartzen diren joko konkretuak herri batetik bestera alda daitezke. Lehiaketa moduan planteatuta zeuden jokoak ziren; joko horietako bat literarioa zen: horra hor, d'Abbadieren mezenazgopean burututako Lore-Jokoen oinarri amankomuna; ospa-lekuak eta ospa-leku horietako bakoitzean egitaraura eramandako joko zehatzak dira aldagaiak.

Hasiera eman 1853an, eta handik hogeitazazpi urtera igarotzen dituzte Pirineoak, 1879an. Iparrean burutu dira aldi luze batean (1853-1878). Ez gorabeherarik gabe, ordea. Giroa ez zen izan uneoro gozo-gozoa alderdi guztietan. Literatur lehiaketan emandako epaiak, esaterako, ez ziren beti aho batez onartu. Sorreran bertan, jadanik, epaimahaiak saritu ez zuen lehiakide batek, Piarres Topet "Etxahunek", satira erabiltzeko zeukan trebezia, bera saritu ez zuen epaimahaiarengana zuzendu zuen berau irigarri uzteko. Pasadizo hutsa litzateke baldin eta 1870. urteen inguruan askoz gehiago garrastu izan ez balitz literatur lehiaketaren inguruko giroa. Ia urtero dago auziren bat. J. Vinsonek eta M. Gilbeauk behin eta berriz salatzen dituzte epaimahaiaren erabaki eta jokabideak¹. Eta dirudienez sormena bera ere ez dago onenetan. Etsita agertzen da Duvoisin. Duvoisin kapitainak 1879ko ekainaren 21eko datarekin Mauleko Sallaberry notarioari igortzen dion eskutitzak ez du iragartzen etorkizun itxaropentsurik:

"Je suis marri de voir que les Basques de France paraissent disposés à abandonner le concours de poésie et de prose. Un joli conte, bien raconté, suffirait pourtant, et Dieu sait si certaines vieilles en savent! Une fable, celle-là en vers bien tournés, et point tirée d'auteurs connus, aurait encore des chances. *Ez duzu hor senthagallarik egiteko*².

Beraz, d'Abbadiek Hegoaldea hautatzen duen garaian ez dago unerik distiratsuenean Lore-Jokoetako literatur lehiaketa Iparraldean.

Garai horretan, berriz, Hegoa atera berria da bigarren gerrate karlistatik, lehen gerrate karlistaren ondoko foru-murrizketari erabateko galera ekarri dien gerratik. Baldintza berriak ezarri dituzten garaia da, talde soziologiko zabalaren gaitzespena duten baldintzen ezarpenaren garaia, hain zuzen ere. Foru-erabaketa eta bere ondorioak auzitan dituen garaia. Ikusi besterik ez dago Elizondoko literatur lehiaketan gertaturikoa. Bi sari iragartzen zituen egitarauak. Bata d'Abbadiek jartzen zuen, bestea honekin batera ospakizunak eratzen zituen

1. J. Vinson ez du asetzen 1869an Saran ospatu ziren Lore-Jokoetan epaimahaiak hartutako erabakiak. Saran, bertan, 1872an ez zitzaion aipurik egin literatur lehiaketari. M. Gilbeauk gogor erasoko du 1874an epaimahaia; tamalgaria iruditzen zaio bere erabakia. Vinsonek 1875ean Saran ospatutakoen epaimahaia misteriosotzat jotzen du. 1876an epaimahaiak antolatzaileen esku utzi zuen erabakia, bere ustez saria merezi zuen poesia bakarra errepublikaren satira zelako; antolatzaileek saririk ez ematea erabaki zuten.

2. DARANATZ, J.B.: "Correspondance du Capitaine Duvoisin" in *R/IEV* 1930, 355. or.

Nafarroako Euskal Elkargoak. D'Abbadiek emandako saria Ramon Artola donostiarrarentzat izan zen eta Nafarroako Elkargoarena, dirutan handiena, Felipe Arrese Beitiaren "Ama euskerrari azken agurrak" zeritzanarentzat. Arrese Beitiari, ordea, isilpean eman zioten. Arrazoa, zerabilen gaian zegoen. Arrese Beitiak foruen ezabaketa eta euskararen heriotza lotzen zituen. Antolatzaileak beldur dira ospakizun hauen etorkizunaz. Etorkizuna kolokan ikusten dute. Debeku-arrisku oren itzaletik urruntzearen aldarrikapen handirik gabe utziko dituzte Arrese Beitiaren neurtitzak. Hala dio Duvoisin kapitainak Bonaparte printzeari 1879ko uztailaren 24ko datarekin igortzen dion eskutitzean:

"Comme le Pays Basque-espagnol est sous le régime de l'état de siège, nous n'avons pas jugé à propos de publier que M. de Arrese est premier lauréat au concours d'Elizondo, (de peur de faire interdire ces concours à l'avenir), mais on lui fera parvenir le prix"³.

Dena den, Elizondon antolatzaileek erakutsi zuten beldurra edo zuhurtzia ez da aurreantzean azalduko. Salbuespena da eta, salbuespena den neurrian, anekdotikoa izan daitekeen gertaera. Hala ere, agerian uzten du d'Abbadiek Pirineoak igarotzen dituenean zein egoera historiko bizi duen Hegoak.

Urtealdi hauetan euskal literatura suspertu egiten da. Labainkorra izan daitekeen kausa-efektuen alorra alboratuz gertaera bera azpimarkatzen dugu: euskal literaturaren bizkortzea. Gerrate karlistaren amaierak ekarri duen uztak sortzen duen frustrazioak edo oraindik ahitu ez den eta gerrate hori berori oinarritzatu zezakeen izpiritu erromantikoaren bultzadak edo kulturaren hedapenak eta, nola ez, faktore guzti hauek eta besteren batzuk eragin zezaketen. Kausak kausa, euskal literatura indar berritzen da. Indar berritze hau ez dator Lore-Jokoen ospakizunetik bakarrik, baina Lore-Jokoetan bertan atzematen da, are gehiago, Hegoa erreferentzi puntutzat hartuz.

D'Abbadie Hegoaldera datorrenean, une horretan bertan, Lore-Jokoen eraketa hedatzen hasten da lurralde honetan. Urte berean, 1879an, Donostiako euskal festak hasten dira. Diputazio eta Udalaren babesarekin batzorde iraunkor bat du antolatzaile: d'Abbadiek urtero ospatzen zituen Lore-Jokoei beste bat gehitzen zaie maiztasun berberarekin. Bi literatur lehiaketa, bi ospakizun. Berauen eredia jarraituz, beste antolatzaile batzuk sortuko dira hanhemenka: Iruñean, 1882. urtetik aurrera⁴, bertako Udalak antolatuko ditu San Ferminen ohoretan; Bilbon Euskal-Erria elkarteak ekiten dio eginkizun honi, baita Bilbotik kanpo ere: Nafarroako Elkargoarekin batera Hondarribian burutuko ditu 1883an⁵; Gasteizen bertako Ateneoaren eskutik etorriko dira⁶; zenbait herritako Udalek ere urte konkreturen batean eratu zituzten. Honela, Durangoko Udalak Bizente Arana idazlearen laguntzarekin 1885erako presatatu zituen, nahiz eta 1886rarte ez ziren ospatu⁷. Gernikako Udalak, berriz, 1888an antolatu zituen⁸.

3. DARANATZ, J.B.: "Correspondance du Capitaine Duvoisin" in *RIEV*, XXI, 1930, 358-359. orr.

4. Ikus, esate baterako, 1882an ospatutakoen egitaraua, *Euskal-Erria*, VI, 1882, 143-144. orr.

5. Ikus egitaraua *Euskal-Erria*, IX, 1883, 120-125. orr.

6. Ik. egitaraua *Euskal-Erria*, XIX, 1888, 88-90. orr.

7. Españako zenbait lurraldetan zabaldua zegoen izurritea eman zuten arrazoi bezala 1885ean ez ospatzeko. Ikus atzeratzearen arrazoiak, egitaraua eta festen garapenaren berriak *Euskal-Erria*, XII, 1885, 46-50. orr., 83. or., 148. or., 281-283. orr., 350. or.; XIV, 1886, 507. or., 568. or.; XV, 1886, 97-103. orr.

8. Ik. *Euskal-Erria*, XVIII, 1888, 346-348. orr. eta XIX, 63-64. orr., 158. or., 248-254. orr., 264-270. orr., 304. or.

Lore-Jokoen ugaltzea nabarmena da. Ugaltze hau, gainera, oinarri amankomuna gordeaz eman zen: literatur lehiaketa barneratzen duten jaiak dira. Jaien egitaraua txapelketa desberdinek osatzen dute. Beraz, lehiaketa da hitz giltzarria eta lehiaketa alor desberdinetara zabaltzen da: irrintzilari, danbor-jole, literatura, pilotari eta abar. Alderik ere, egon badago: egitaraua eramaten den lehiaketa-multzoan, lehiaketa gutxiago edo gehiago azpimarkatzean, ospa-lekuan... baita literatur lehiaketako hizkuntzan ere.

Hegoan burutzen den Lore-Joko multzoan bi antolatzaileengandik datozenak dira euskara hutsean garatzen direnak: Antoine d'Abbadierenak eta Donostiako euskal festak. Euskaraz egindako idazlanak bakarrik eskatzen zituzten literatur lehiaketako deialdiek. D'Abbadiek Iparrean nahiz Hegoan horrela jokatu zuen, baita Donostiako euskal festen eratzailleek ere.

Gainontzeko Lore-Jokoetako literatur lehiaketek, antolatzaile desberdinak izanda ere, beti euskal eta erdal idazlanen artean banatu zituzten sariak. Iruñean, Gasteizen, Durangon, Hondarribian, Gernikan... ospatu ziren Lore-Jokoak euskarazko zein gaztelerazko idazlanak saritzen dituzte. Ez da lehiakidearen esku uzten den aukera; deialdien oinarriek beraiek zehazten dute hizkuntza. Hizkuntza batean ala bestean saritutako idazlanen kopurua eta hizkuntza bakoitzean saritzen den idazlan-modua aldatu egiten da antolatzaile batzuegandik besteengana, baina, orohar, euskara gizarte-bizitzan jadanik desagertu den edo ahula den herriak ospakizun-leku direnean eskaintzen zaio sari-kopuru urriena euskal idazlanari: Iruñea, Gasteiz. Dena den, bada Lore-Jokorik euskarak halako ahuleziarik erakusten ez zuen herrian burutu eta literatur lehiaketa mailan bi hizkuntzen arteko oreka gorde arren, ospakizunetan batipat gaztelera erabili zuenik. Hala gertatu zen, esate baterako, Gernikakotan, 1888an. Bere garaian bertan euskal festatik ezer gutxi izana salatu zitzaion⁹.

1. LITERATUR LEHIAKETA

Antoine d'Abbadieren mezenazgopean eraturako Lore-Jokoetako literatur lehiaketen emaitza publikoak neurtitzera mugatu ziren. Hasieran deialdiak neurtitza eta neurtitza bakarrik eskatzen zuelako; gerora, 1870. urteetatik aurrera, deialdiek hitz-laua ala neurtitza erabiltzea lehiakideen esku utzi zuten, baina beti neurtitza gailentzean eta hitz-lauz aurkeztu zirenak ez sari, ez aipamenik eskuratzean, hauek argitaratu gabe gelditu zirelako. Ipar nahiz Hegoa izan ospa-leku literatur lehiaketako d'Abbadie saria neurtitzarentzat izan zen. Adibidez, Elizondon 1879an ospatu zirenetan d'Abbadiek 50 bertso-lerro inguruko kopia ala hitz-lauzko kondairaren bat saritzen zuen. Neurtitzak eraman zuen saria. Berdin gertatuko da gainontzekoetan.

Donostiako euskal festetako literatur lehiaketaren deialdia zabalagoa da; atal gehiago ditu. Jaiotzean bertan, 1879an, lehen saria hitz-lauzko leiendarentzat da, bigarrena, neurtitzarentzat (gai librea), hirugarrena lexiko-sorkuntzarentzat eta, laugarrena, "omen edo glorien batzuen gainean bertsoz onenentzat"¹⁰; 1880an, hitz-laua eta neurtitza bereizten dituzte:

9. Isidoro Ruiz de Arbulok honela dio: "tristísimo papel que el idioma euskaro ha representado en unas suntuosas solemnidades llamadas euskaras, y en las que la nota más saliente ha sido la casi completa ausencia del bascuence, pues que ni por los discursos pronunciados, ni por los programas, ni por los cantos, ni por las inscripciones se ha podido nadie convencer sino de que se trataba de fiestas castellanas, (...) y no de unas fiestas euskaras en las que se ha dejado un puesto de orden muy secundario al idioma en cuyo honor se celebraban". *Euskal-Erria*, 1888, 306. or.

10. *Euskal-izkribatzalleen indar-neurtzea, 1879ko Agorillaren 7garren egunean Donostian eguiña orretarako artu diran prestamen, eta sarizatuak izan diran izkribu-antolamenduen oroitza*, Antonio Baroja-ren moldizkiran, Donostian, 1879, 6-7. orr.

hitz-lauan hiru sari ematen dira, neurtitzean beste hiru¹¹; 1881ean aldaketa gutxi somatzen da egitarauan eta 1882an, berriz, lehenbiziko aldiz antzerkiari saria eskaintzen zaio¹². Nobedadea, antzerki-testua saritzea, ez da mugatzen urte bateko deialdira, aitzitik, hurrengo urteetako literatur lehiaketako deialdietan ere jarraituko du. Iraupen honi esker, Donostiako euskal festek beste euskal festek ez bezalako ekarria egiten dute, gerora antzerki berria izendatu den fenomeno horren hezurmamitzera. Ekarrria, gainera, ez zen gelditu lehiaketen emaitzetatik jalgitzen den testu-multzoan; antzezpenei egindako tartearekin borobiltzen da. Donostiako Antzoki Zaharrean egiten zen ospakizunean antzezpenak urtero izan zuen bere tokia sari-banaketaren egitarauaren barnean.

Zinez, d'Abbadieren mezenazgopean Hegoan ospatutako Lore-Jokoen literatur lehiaketak ez ziren beti sari bakar batera mugatu eta egitarau zabalagoa aurkeztu zuten. Izan ere, d'Abbadiek beti bilatu zuen babesia edo babesia eskaini zioten. Ez zegoen bakarrik Hegoan. Beti Hegoaldeko elkarte edo erakunderen baten babesia jaso zuen, baita pertsona partikularrena ere, edo batzuk eta besteak d'Abbadiek zuen ospe ikaragarriak egiten zuen itzalera hurbildu ziren.

Hala, Elizondon ospatu zirenak Nafarroako Euskal Elkargoarekin eta Udalarekin batera antolatu zituen. Nafarroatik Gipuzkoara, 1881ean Iruna datorrenean, Irungo Udala da antolatzailea eta antolatzaile legez Nafarroako Elkargoaren eta d'Abbadieren laguntza eskatzen duena. Gipuzkoatik Bizkaira doa. Bidaia honetarako Bizente Arana idazlearen lankidetzara eskatzen du d'Abbadiek eta haren eskutan uzten eraketa eta ospakizun-lekua hautatzea. Bizente Aranak Markina aukeratu zuen eta hemen ospatu ziren 1883koak.

Elkar-lan honi esker literatur lehiaketaren egitaraua zabaldu egiten da, herri batzutan gehiago bestetan gutxiago, baina beti sari bakarra gaindituz. Bada sari finko bat, d'Abbadiek ematen duena: 50 bertso-lerro inguruz osatutako poesiarri edo hitz-lauz idatzitako kontaketa laburrari. Sari finko honi beste batzuk gehituko zaizkio. Honela, 1879an Nafarroako Elkargoak emandakoa Elizondon: "Euskaldunen gauzik maiteena"ren gainean neurtitzez idazten duenari; 1881ean Irunen d'Abbadiek saritzen zuen kantu hoberenaz gain Nafarroako Elkargoak emandako bi sariak daude, biak neurtitzari eskainiak, bata gai askea du, besteak ezarria: "Euskal Herriaren batasuna". Markinan 1883an d'Abbadiek ohiko saria ematen du: 50 bertso-lerro inguruko poesia lirikoari edo hitz-lauzko kontaketa laburrari 230 erreale. Bestetan bezala, d'Abbadieren sariari beste batzuk batzen zaizkio: Rafael Minio jaunaren izenean bere alargunak emandako urrezko larrosa neurtitzez idatzitako leizendari hoberenarentzat. Badira, beste sari batzuk ere: Peñafloidako kondearen alargunak aurrez iragarritako gai historiko bat ondoen lantzen duenari emana, Bizkaiko Aldundiak bizkaitar ospetsu baten biografiarik hoberenari emana eta Markinako Udalak herriaren historiaren sinopsis hoberenari eskainitakoa.

Babesle desberdinek egindako eskaintza bide, literatur lehiaketaren deialdiek sari-kopurua gehitzen dute. Besterik ez; izan ere, egitarau zabaltze honek ez ditu, ez urardotzen Lore-Jokoak, ezta d'Abbadie gainontzeko babesleen mailan jartzen du. Babesle eta arduradun nagusi izaten jarraitzen du. Ikusi besterik ez dago nolako harrera egiten zioten festa-egunak ospatzera zetorrenean edo literatur lehiaketara bidalitako idazlanak zein helbidetara igorri behar ziren. Bitartekarien bidez edo zuzenean lehiakideek beren idazlanak Baionara bidali

11. *Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria*, argitaletxe eta argitalpen-lekurik gabe, 1880, 6-8. orr.

12. *Euskal-festak Donostian. Oroimengarria*, Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1882, 5-7. orr.

behar dituzte. D'Abbadiek Iparraldean antolatzen zituenean jasotzen ziren leku berberera: Mme. Lamaignèrenen modiztegitara bidali zituzten 1879-1889 urteen artean, beranduago, 1891, 1893 eta 1895ekoak Mr. Lasserrerengana. Beti Baionara helerazi behar dituzte, hasieran moldiztegi batera, gero, bestera. Lankidetzat dago, egitaraua zabaltzen da, baina festen garapen-moduan eragin gabe: D'Abbadieren ardurapean gelditzen da epaimahaia izendatzea eta, azken batez, literatur lehiaketaren erantzunkizuna. Bere sariak ere ez du aldaketarik jasaten. Kontaketa laburra edo 50 bertso-lerro inguruko konposizioa saritzen du; oinarriek batzutan gaia ezartzen dute eta bestetan aske uzten. Festen egitarauaren barnean jakinerazten da epaimahaiaren erabakia eta orduan irakurtzen (Iparraldean kantatzen) jendaurrean. Orri soltea eta aldizkaria(k) izango ditu argitalpen-leku. Beraz, D'Abbadiek emandako sariaren baldintzak ez dira aldatzen Hegora datorrenean.

Deialdien oinarriek gai ezarriak eta lehiakideen esku uzten dituztenak aurkezten dituzte. D'Abbadiek Hegoaldean ospatu zituenetan parte-hartzailearen esku uztera jo zuen gaiaren aukera, behin bakarrik ezarri baitzuen berak eskainitako sarian. Beran izan zen 1895ean. Lehiakideek honako gai hau erabili behar zuten: Sarako Magdalena Larralderen martirioa. Izan badira ezarritako gaiak, baina beste babesle batzuk dira ezarritako gaia saritzen dutenak. Esaterako, 1879an Elizondon eman ziren sarietan bazen bat gai ezarria erabili behar zuena: "euskaldunen gauzik maiteena". Ez zen, ordea, d'Abbadiek jarritako saria, Nafarroako Elkargoak eskainitako sarietako bat baino (bigarrenak lehiakidearen esku uzten zuen gaiaren aukera).

Badirudi d'Abbadiek, Hegoan behintzat, Duvoisin kapitainaren aholkua jarraitu zuela. Duvoisini urtetan barrena Lore-Jokoetan jasotako eskarmentuak gaia lehiakidearen esku uztea gomendatzen zion¹³.

Esan bezala, neurtitza nagusitu zen d'Abbadieren lehiaketetan. Kontaketa laburren bat edo beste aurkeztu zen, baina ez zuen epaimahaiaren iragazia igaro eta, honenbestez, ez zen argitaratu. Eskuizkribu gisa gorde dira, ordea, eta horregatik, hain zuzen ere, baieztatu daiteke noiz edo noiz lehiakideren batek kontaketa hartu zuela adierazpen-modu. Dena den, zeinahi ikuspuntutatik begiratzen dela ere, lehiaketa hauek ez ziren izan kontaketa laburren garapen-leku. Ez Hegoan, ezta Iparrean ere. Eta nekez bihur zitezkeen kontaketa garapen-leku lehiakideak beraiek direnean neurtitza hautatzen dutenak. Urtez-urteko sariketen emaitzen argitalpenek erakusten dutenari epaimahaiaren iragazia igaro ez zuten eskuizkribuek agerian uzten dutena gehitzen bazaio, kontaketa lehiaketara maila testimonialean besterik ez zela iritxi ondoriozta daiteke. Dirudenez, Karmelo Etxegaraik zioen bezala, neurtitzarekin hobeto moldatzen da euskalduna:

"A esa abundancia de verso, no acompañó igual abundancia de prosa. Por el contrario, la prosa, salvo contadas excepciones continuó reducida á libros piadosos, y cuando en un concurso cualquiera se dejaba en libertad de presentar sobre un tema trabajos escritos en prosa ó en verso, el verso era siempre el preferido"¹⁴.

13. Hala gomendatu zion Nafarroako Elkargoari 1879ko maiatzaren 1eko datarekin Arturo Campioni igorritako eskutitzean: "Il y a près de 30 ans que nous avons ici des solennités de ce genre. L'expérience nous a appris qu'il faut laisser aux poètes le choix des sujets que chacun veut traiter. Ils ne sont pas assez exercés pour les soumettre à des règles plus rigoureuses. L'objection tirée de la difficulté de juger entre des pièces de genres très-divers était spéculative et n'a pas résisté à la pratique. La supériorité perçe toujours". DARANATZ, J. B.: "Correspondance du Capitaine Duvoisin", 348. or.

14. ECHEGARAY, C. de: *Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel*, VI, Imprenta, Librería y Encuadernación de E. López, Tolosa, 1901, 38. or.

D'Abbadieren Lore-Jokoetako literatur lehiaketa gertaera hori islatzera mugatzen da.

Epaimehaiaren erabakia eskuan, neurtitzok festaren osagai izatera igaroko dira. Festaren egitarauak literatur lehiaketaren emaitza aldarrikatuko den ueña iragartzen du. Ekitaldi honetara doazenen aurrean urte horretako emaitzaren berri ematen da eta jarraian sarituek gonbita jasotzen dute jendaurrean kanta ala irakur dezaten. Elizondora 1879an inprimatuta eraman zituzten eta, besterik gabe, banatu, baina Elizondokoa, jadanik agertu den bezala, berezi samarra izan zen. Markinan 1883an, Karmelo Etxegaraik irakurri zituen bereak eta Arrese Beitiarena (ez zen egon Markinan sari-banaketan), Urnietan, Karmelo Etxegaraik, irabazleak berak, irakurri zuen eta jarraian pianoaren laguntzarekin Urnietako gazte batzuk kantatu zuten "Urzo churiya"ren doinua jarraituz; 1891n lurretan saritutako guztiak Arrese Beitiak irakurri zituen; 1895ean Beran ez zen saririk eman.

Saria edo aipamena eskuratzen dutenak, arestian aipatutakoek beraiek erakusten dutenez, literatur lehiaketan emaitzetan behin eta berriz azaltzen diren idazleak dira (Donostiakoetan, kasu) eta, gainera, idaztea literatur lehiaketetara mugatu ez zutenak. D'Abbadieren literatur lehiaketetako erabaki-agiriak jasotzen dituzten izenak Hegoaldeko iharduera literarioa sustatzeari ekin diotenenak dira: Donostiako euskal festetan aurkitzen ditugu, *Euskal-Erria* aldizkariaren orrialdeetan... XIX. mendearen azken laurdeneko euskal literaturaren pizkundea deitu den hori hezurmamitzera lagundu zuten izenak dira. Erabaki-agiri horien arabera Elizondoko sariak Felipe Arrese Beitia eta Ramon Artolarentzat izan ziren; 1881eko Irungo sari eta aipamenak Victoriano Iraola, Antonio Arzak, Klaudio Otaegi, Felipe Arrese Beitia eta Ramon Artolarentzat. Markinan 1883an banatutako sariak Karmelo Etxegarai eta Felipe Arrese Beitiak jaso zituzten; 1886an Urnietan Karmelo Etxegaraik; 1889an Donezteben Klaudio Otaegik eta Ramon Artolak; 1891n lurretan Francisco Lopez Alen, Felipe Arrese Beitia eta Ramos Azkaratek; 1893an Azpeitian Francisco Lopez Alen, Felipe Kasal Otegi eta "Zalduby"k. Beran 1895ean saririk eman ez arren –behar besteko maila inork lortu ez zuelako– Lopez Alenek aurkeztutakoa aipatu zuten.

Egile-zerrenda honek ondorio bat baino gehiago uzten du agerian. Adibidez, guztiak, bat ezik, Hegoan jaiotakoak direla eta Iparrekoek, asko edo gutxi aurkeztu, behin bakarrik eskuratu zutela saria. Edo beren garaian ospe handia izatera heldu zirenak parte hartu zutela. Edo Hegoan ez zela egon arazorik goitizenekin. Iparrean goitizenen ugaritasuna nabarmentzen izan zen, Duvoisin kapitainaren kezka-iturri bihurtzerainokoa¹⁵.

2. GAINONTZEKO LEHIAKETAK. FESTEN EGITARAUA

D'Abbadie ez da mugatzen literatur lehiaketan saria eskaintzera. Beste alor batzutura zabaltzen du bere mezenazgoa.

Lore-Jokoak zerbait badira festak dira, olgeta. Hiru eta lau egunetako iraupena zuten festak. Lau egunetako egitaraua izan zuten Elizondokoek eta Irungoek, hirukoak izan ziren gainontzekoak. Urte-sasoia, berriz, udazkena dute, zehazki, iraila, Elizondokoak eta Berakoak izan ezik. Elizondokoak uztailaren bukaeran izan ziren eta Berakoak abuztuaren hasieran, herriko jaiekin bat eginaz.

15. 1879ko maiatzaren bateko datarekin Arturo Campioni egin eskutitzean arazo honen berri ematen zion:

"Les pseudonymes abondent toujours. Une fois les lauréats proclamés, les auteurs se font connaître. Il y en a eu qui, voulant rester inconnus, ont désigné des œuvres charitables pour profiter des prix. On a respecté les motifs délicats de leur conduite et on s'est conformé à leur désir. Si la presse de vos contrées faisait connaître cet usage, vous auriez peut-être des concurrents capables, qu'une fausse honte retient en arrière".

Festa ikuskizun desberdinez osatzen da, lehiaren, neurketaren, norgehiagokaren gain eraikitako ikuskizunez. Norgehiagoka alor literarioan eta gainontzekoetan. Herri batetik bestera egitaraua zertxobait aldatzen da. Hala ere, badira zenbait norgehiagoka beti agertzen direnak Elizondo - Irun - Markina - Urnieta - Iurreta - Azpeitia - Bera herrietan barrena egin zuen ibilbidean: bertsolariak, korrikalariak, pilotariak (modalitate desberdinetan: bleka, errebotea, txistera...) lehiatu ziren. Ganadu-txapelketa ere guztiek izan zuten. Aipatutakoez gain, Elizondokoek, euskararen alde gehien saiatutako eskola-maisuari eman zioten saria eta danbor-jolerik onenari. Irungoak, danbor-jole, estropada, igerilarien arteko norgehiagokaz gain, partaidetasuna emakumeei murrizten zien norgehiagoka bat izan zuten: pendarra buruan zutela egindako lasterketa. Markinan irrintzilariak, danbor-joleak, dultzaineroak, trontzalariak, ezpatadantzariak, aureskulariak, marrazkilariak, orfeoia, lehiari ikusteko aukera izan zuten, baita pendarra buruan zutela emakumeak egindako lasterketa ere. Urnietara joan zirenak emakumeak pendarra buruan zutela egindako lasterketa eta irrintzilarien arteko norgehiagoka ikusteko parada izan zuten. Iurretako egitarauak ezpatadantzari, aureskulari, irrintzilari, eta danbor-joleen arteko lehiaketa iragarri zuen. Azpeitian irrintzilariak, danbor-joleak eta pendarra buruan zutela emakumeak neurtu ziren. Beran, dantzari eta txistularien arteko norgehiagokak egon ziren.

D'Abbadieren mezenazgoa lehiaketa hauetako batzutura hedatzen da. Salbuespenik gabe modalitate desberdinetako pilota-partiduak saritzen ditu. Honetaz gain, ganadu-txapelketan sariren bat eman zuen –Irunen ospatutakoak lekuko– baita beste sari batzuk ere: korrikalariak, pendarra buruan egindako lasterketa eta bertsolariak saritu zituen Irunen eta Markinan. D'Abbadie andereak berak ere jarri zuen saririk. Markinan, esaterako, irrintzilarien arteko norgehiagokarako saria D'Abbadie andereak eman zuen.

Festaren bizkarrezurra lehiaketaren gain eraikitzen da. Trebetasuna saritzen da, trebetasuna adierazpen desberdinetan: dantzan, korrika, irrintzia jaurtitzan, danborra jotzen... Ikuskizun-multzo honetan hitzaren erabileran oinarritzen den adierazpenak ez du hartzen protagonismo nagusia; batetik, bi ataletara mugatzen delako, literatur eta bertsolari-lehiaketara; bestetik, ez bata, ez bestea direlako saririk handiena daramatenak. Atal bakoitzari eman zitzaion garrantzia eskaintako sariaren arabera neurtu beharko balitz, lehen-lehenik pilota jarri beharko litzateke, jarraian, ganadu-txapelketa. Honela, Elizondon errebotetzko partidoari 500 pezeta eskaintzen dizkio d'Abbadiek, poesiari, berriz, 80 pezeta eta makila zilarreztatua.

Ospakizunak igaroaz bat euskal festa hauen gainean idatzi ziren kronikek agerian uzten dute bertsolarien arteko txapelketek izan zuten arrakasta. Elizondon Zizurkilgo Jose Bernardo Otaño eta Asteasuko Pedro Jose Elizegi bertsolarien arteko norgehiagoka izan zen “el que más agradó al público” eta “inmensa muchedumbre”¹⁶ izan zuten entzule. Irunen bertsolarien arteko txapelketa “ante una gran concurrencia”¹⁷ ospatu zen. Urnietan “plazan zegoen jende guztia egon zan arretaz entzuten... eta chalo asko joz”¹⁸, Beran, “entretuvo agradablemente á más de dos mil almas que se estrujaban en la plaza para mejor oírlos”¹⁹.

Literatur lehiaketara aurkeztzen ziren haiekin gertatzen zen antzera hainbat lehiakideren izenak errepikatu egiten dira. Hala, Asteasuko Pedro Elizegi Elizondon, Irunen, Markinan eta Urnietan aurkitzen dugu. Oiartzungo Juan Kruz Elizegi Irunen eta Beran. Zizurkilgo Jose Bernardo Otaño Elizondon eta Azpeitian. Usurbilgo Juan Jose Alkain “Udarregi” Irunen,

16. *Revista Euskara*, II, 1879, 235. or.

17. *Euskal-Erria*, IV, 1881

18. *Euskal-Erria*, XV, 1886, 292. or.

19. *Euskal-Erria*, XXXII, 1895, 148. or.

Urnietan eta Azpeitian. Bada d'Abbadiek Hegoaldean egindako ibilbidean, zazpi urtek eta zazpi herrik osatzen duten ibilbidean, behin bakarrik bertsolarien arteko txapelketara aurkeztu zenik. Bautista Urkia "Gorriya"k, Juan Jose Beldarrainek, Jose Kruz Sagardia "Olloki"k, Labandibar anaiek, Pello Errotak, Erretereriako Juan Jose Lujambiok, Berrizko Domingo Besoitak, Juan Jose Elizegik eta Juan Jose Ugaldek osatzen dute zerrenda hori. Dena den, d'Abbadieren Lore-Jokoetako txapelketetara aurkeztutako bertsolarien mugak gaudituz eta ikuspegi zabalagoa argitan, ospe handiago edo txikiagoarekin bigarren gerrate karlistaren ondorengo bertsolaritzaren historia ehotu zuten bertsolariak dira.

Azkenik, festa hauen egitaraua mintzagai ezin utzi aipatu gabe antzerkia. Zalantzarik gabe, d'Abbadieren mezenazgopean ospatutako Lore-Jokoak ez dira igaro historiara antzerkia sustatzeagatik. Ez testuak izan zuen lekurik literatur lehiaketan, ezta antzerki-antzezpenek pilota-partiduek egitarauetan izan zuten leku finkoa. Euskal festak - antzerkia harreman horretan, ezpairik gabe, Donostiakoekin ditu zorrik handienak antzerkiak; izan ere, festa hauek izan ziren antzerkigintza gehien bultzatu zutenak. Gainera, antzerkiaren bi alderdietan erparatu zuten: testuan eta antzezpenean. Testugintza literatur lehiaketaren bidez sustatzen dute: 1882tik aurrera antzerki-testura hedatzen da lehiaketa. Antzezpena, berriz, sari-banaketaren egunean. Donostiako euskal festak Donostian ospatu ziren bitartean Antzoki Zaharra izan zuten festa-leku eta Antzoki Zaharrerako prestatzen zuten egitarauak antzezpena jasotzen zuen. Lore-Jokoen barrutian Donostian bakarrik lortu zuen iraupena antzerkiak bere bi osagaietan: testua eta antzezpena. Donostiatik kanpo noizbehinka besterik ez zuen erdietsi euskal festen egitarauetan lekua hartzea. Noizbehinka eskuratutako leku honetan Durangon 1886an ospatutakoak aipa daitezke eta d'Abbadieren mezenazgopean urte berean Urnietan ospatu zirenak. Durangon literatur lehiaketan zegoen eta Marzelino Soroak eskuratu zuen saria, Urnietan, berriz, festen egitarauaren barnean Marzelino Soroaren *Anton Kaiku* (moldaketa) eta *Barrenen arra* antzeztu ziren.

3. LITERATUR LEHIAKETA EUSKAL FESTETAN

Esan bezala, d'Abbadieren mezenazgopean ospatutako Lore-Jokoak literatur lehiaketa barneratzen zuten festak izan ziren. Festa lehiaketaren gain eraikitzen da eta lehiaketekiko bat "euskal izkribatzalleen" artekoa da. Horra hor, Iparrean nola Hegoan d'Abbadieren Lore-Jokoek aurkezten duten oinarri amankomuna. Oinarri amankomun hori nagusitzen zaio Ipar ala Hegoko ospakizunen artean egon daitezkeen aldeei.

Ondasunak eta jakintza biltzen zituen norbaitek eman zien hasiera Euskal Herrian. Ondasunak mezenas gisa babesteko erabili zituen, baina bere jakintzak ez zuen eraman, ez jakintsuen arteko lehiaketak antolatzerara, ezta festa elitistak eratzerara ere. Herritarrak izan ziren, ezpairik gabe, d'Abbadieren eskutik 1853tik aurrera ospatu ziren Lore-Jokoak.

Bi hitz bakarrik hautatu beharko balira Lore-Joko hauen ezaugarriak mugatzeko "herri" eta "euskal" egokiak izan daitezke.

Euskaldunak izan ziren erabilitako hizkuntzagatik eta beste era bateko adierazpenengatik. Hau da, giza talde jakin baten jatorrizko hizkuntza eta giza talde berarenak diren beste adierazpen batzuk gorde eta sustatzea bilatzen dute.

Herritarrak izan ziren jende asko erakarri zutelako, herritarrak, jolasa eta olgeta sortzeko erabili zituzten osagaiengatik, herritarrak parte-hartzaileengatik. Herri-jolasek eta folklore-adierazpenek osatzen dute, batipat, egitaraua. Folklore-adierazpen horiek bere dituen giza taldearen hizkuntzan burututako sorkuntzak batzen zaizkio egitarauari. Osagai hauekin prestatutako festa zirrara garriago eta erakargarriago bihurtzen du lehiaketak.

Hitz batean, pilotari, dantzari, danbor-jole, irrintzilari, txistulari eta abarren arteko lehiaketak antolatzeak banakoturik, indibidualizaturik dagoena bultzatu nahia azaleratzen du. Giza talde jakin batek –euskaldunak– festa eratzeko dituen adierazpenak ditu oinarri. Ororenak gabe, giza talde jakin batenak dira eta, honenbestez, bereziak. Batipat, euskaldunen adierazpen bereziak sustatzen dira, beste giza talde batzuenak ez bezalakoak diren adierazpen haiek.

Banakoturik, indibidualizaturik dagoenak erakartzen du arreta. Arretagunea, ordea, ez dago gizabanakoaren adierazpen berezian, gizabanako konkretuaren nortasun bereziaren kanporatzean, baizik eta giza talde berezituaren nortasuna adieraztean.

Testuinguru honetan kokatzen da literatur lehiaketa. Hizkuntza da bere elementu bereizgarria. D'Abbadieren mezenazgopean eratutako Lore-Jokoek euskaraz burututako idazkiak saritu zituzten. Euskal Herrian beste hizkuntzarik erabiltzen bada ere, jatorrizko hizkuntzara mugatzen dira sariak. Hitz batean, Lore-Jokoek giza talde berezitu baten adierazpenak sustatzen dituzte, bitarteko desberdinak darabiltzaten adierazpenak. Jatorrizko adierazpenak edo jatorrizkotzat jotzen direnak. Giza talde jakin baten adierazpen bereziak bultzatze honek ezaugarritatzen ditu.

Galde daiteke, ea Lore-Jokoen euskarria –giza talde jakin baten adierazpen-modu bereziak garatu eta sustatu– literatur lehiaketari dagokionez erabilitako tresnan (hizkuntzan) bakarrik gelditu zen ala landutako gaietara bertara ere heldu zen.

Erantzun bete-beteak azterketa xehea eskatuko luke eta ez da, ez lerro hauen helburua, ezta aztergaia ere. Hein berean, modu orokorrean behintzat, oker handirik egiteko arriskurik gabe, baieztatu daiteke, batzutan bai eta bestetan ez. Aski da izenburu batzuk begiratzea eta gain-gainetik irakurketa egitea, “Senperetar batek” izenpetzen zuen “Betirisants”en (Sara, 1874) edo “Piarres Uxaleguy”k izenpetutako “Biba Republika!”n (Sara, 1876) ez dela horrelakorik atzematen ikusteko. Aipatu goitizenen azpian ezkutatzen den Grazien Adema “Zaldubuy”k titulu hauetan bere zain satirikoa erabili zuen. Besterik esan daiteke Felipe Arrese Beitiaren “Ama euskerari azken agurrak” dela eta edo Antonio Arzak-en “Iltzen bazaigu Ama Euskera Euskaldunak illak gera” dela eta. Giza talde jakin baten hizkuntza, hizkuntza horrek lehenaldian zuen bizitzaren nostalgia; foruak, giza talde jakin batek bere gobernurako izan dituen lege bereziak, berauek galtzeak sortzen duen mina. Giza taldearen ezaugarri bereizleak testuaren gaia bera harrapatzen dute.

Beraz, banakoturik, indibidualizaturik dagoenarekiko lilura azaltzen da Lore-Jokoetara aurkeztutako hainbat poesiatan. Baina, beti ere, giza talde mailan, ez hainbeste gizabanako mailan. Hau da, egileak ez darama neurtitzera bere mundu berezia, besterena ez bezalako, erabat partikularra, ezta berea eta berea bakarrik den mintzaira ere. Alegia, neurtitza ez darabil eskuartean duen gaiaren ikuskera erabat banakoa eta berezia emateko, prozedura erabat partikularrak erabiliz. Egileak ez du bilatzen berea bakarrik den unibertso berezia sortzea, ezta mintzaira estandarra abiapuntu hartuta berea bakarrik den mintzaira sortzea.

Azken batez, giza taldearen egoera eta ezaugarri bereizletan gaiak oinarritu edo esparru honetatik kanpo lekutu, herritarrak izan ziren Lore-Jokoak. Marfilezko dorrean isolatu gabe, egileak kolektibitate batekin bat egitea bilatzen du. Mundu berezia sortuaz eta mundu hori mintzaira berezi baten bidez adieraziaz nekez bategin daiteke kolektibitate batekin. Kolektibitate baten mundua eta kolektibitate horrentzat ulergarri izan daitekeen eran adierazia eramaten da gehienetan testura. Bere ezaugarri bereizletan oinarritu ala ez, giza talde baten gaiak direnak eta giza talde horrek bereganatzeko moduan adieraziak. Banakotua, indibidualizatua dagoena erdigune bihurtzen denean ere, giza talde mailan da eta ez gizabanako mailan.

“Euskal” eta “herri”k mugatzen zituztela Lore-Joko hauek esaten zen arestian. Euskaraz burutzen dira eta, zenbaitetan, giza talde baten ezaugarri, nahi eta abar gai bihurtzen dira. Jende asko joaten da festara, herri-jolas, folklore-adierazpen eta herri-poesiaz osatutako festara eta festa sortzen eta festaz gozatzen duena giza multzoa da.

Literatur lehiaketa komunikazio-testuinguru honetan kokatu behar da. Festen barnean irakurriko (edo kantatuko) den testua da. Herri-jolasekin eta folklore-adierazpenekin gozatze-ra joan den publiko berbera du aurrean edo hauetako batzuk behintzat; izan ere Hegoan, d'Abbadieren mezenazgopean ospatutakotan areto batean egiten zen ekitaldi hau (eskola, udaletxe eta abar) eta, honenbestez, ekitaldia bere borondatez hautatu duen jendeak osatzen zuen publikoa. Publiko honen aurrean irakurri behar du(te) sarituak. Aurrez-aurre du entzulea eta bere erantzuna berehalakoa izan daiteke: oniritzia nola gaitzespena batpatean jaso dezake. Komunikazio-testuinguru honetan egilea ez zaio zuzentzen nonbait dagoen irakurleari eta noizpait non edo non (aldizkaria, kasu) erantzunen bat eman dezakeenari. Bataren eta bestearen baldintzak desberdinak dira. Lore-Jokoetara aurkezten denak badaki aurrean izango duen jende multzo bati zuzendu behar zaiola; mundu idatziaren konbentzioen barnean, aldiz, idazlea, ez zaio aldi berean multzo bati zuzentzen. Multzoren bat irakurle badu, banaka-banaka irakurri dutenak zenbatuz da. Badirudi multzoari zuzentzen zaionak beharrezkoago eta berehalakoago duela sintonizatzea, bat etortzea, komunikazioa heleraztea lortzea. Besteak, komunikazio-sistema honetatik kanpo dagoenak, lekuz eta garaiz ere urrun dauden banako batzuekin “hitz egin” dezake; aukera gehiago du “arima bixikiak” hantxemenka aurkitzeko.

Beraz, Lore-Jokoen testuingurutik nekez sor zitekeen herritarra ez zen poesia: jende-multzoarekin sintonizatu behar zuen eta, badirudi, jomuga hori erdiesteko baldintza dela jende-multzo horrentzat ezagunak diren gaiak erabiltzea eta ulergarri zaizkion eran, gainera. Hau da, jende-multzo horren sentipenekin bat egitea.

Jakina, komunikazio-testuinguruaz ari gara eta bada beste faktorerik ere sorkuntzan eragin dezakeenik: egilea bera. Egileak XIX. mendeko euskal gizartean jaio dira, gizarte horrek ordurarte burutu duen historian kokatzen dituzte oinak, baina guztiak ez dira berdinak, ez ikasketa-mailan, ezta beren nortasun eta etorrian ere, besteak beste. Ondorioz, urtez-urteko emaitza literarioen artean badago alderik. Lore-Jokoetatik jalgitako poesia guztiek ez dute lantze-maila berbera erakusten. Aldagai hauek eta gehiago daude. Herritartasunak ere ez ditu neurri finkoak eta mugarri zehatzak eta bere magal zabalean emaitza jasoagoak eta hainbeste ez direnak biltzen ditu.

Hitz batean, Lore-Jokoetako literatur lehiaketa den komunikazio horren eraketan hainbat faktorek eragiten du eta bakar batera mugatzeak sinplifikaziotan erortzeko arriskua izan dezake. Gainontzekoak mezpretxatu gabe testuinguruarena berriro azpimarkatzera joko genuke, lehenik eta behin lehiaketara aurkezten zenak gogoan hartu behar zuelako eta, bigarrenik, noiz edo noiz, garaikideren bat kezkatzea lortu zuelako: Duvoisin kapitaina, adibidez. Duvoisinek literatur lehiaketara aurkeztutako poesiarik gehienak ahulak ikusten ditu eta baieztu gabe bada ere, hipotesi mailan behintzat, testuinguruari leporatzen dio ahulezia horien eragile izatea. Hala zioen Antoine d'Abbadieri 1878ko irailaren 27an zuzenduriko eskutitz batean:

“Je ne sais s'il ne faut pas chercher l'une des causes secrètes de la faiblesse de la plupart des poésies présentées aux divers concours, dans l'obligation de faire des compositions propres à être chantées sur la place publique, devant le populaire assemblé en jour de fête locale. On peut dire à cela que rien n'empêche le poète de s'élever jusqu'aux plus grandes hauteurs; mais il n'en est pas moins vrai que la situa-

tion, sans aider a l'essor de l'esprit, l'a souvent detourné vers la satire et vers la poésie facile²⁰.

Jakina, Iparraldekoei buruz ari da, hurrengo urtean etorriko baitira Hegoaldera. Poetari goi-mailetara iristea ezerk ez diola oztopatzen uste badu ere Duvoisinek, gure ustez Lore-Jokoetako literatur lehiaketekiko emaitzak ezin neur eta balora daitezke komunikazio hori itxuratu zuten faktoreak gogoan hartu gabe. Herri-festen barnean herri-poesia garatzea da arruntena. Herri-festetatik herri-poesiak erne ziren. Ez gehiago, ez gutxiago.

Herri-poesia, baina idatzia, ildo herritarren barnean dabilena, baina grafema bide aurkeztua. Ezaugarri honek areagotu egiten du Lore-Jokoen garrantzia euskal literaturaren ibilbidearen argitan ikusten denean. Izan ere, euskal lehen liburua "eta baskoek berzek bezala, duten bere lengoajian eskribuz zerbait doktrina eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko, eta denbora igaraitzeko materia²¹ izan zezaten idatzi bazuen egileak, ondorengoek batipat "zerbait doktrina" irakasteko erabili zuten neurtitza eta "plazer hartzeko" horrek arrakasta txikia du.

Etxeparek bere olerkiak argitaratu eta hiru mendetara datoz d'Abbadieren mezenazgopean eraturako Lore-Jokoak. Hiru mende horietan neurtitza batipat "zerbait doktrina" irakasteko erabili denean, Lore-Jokoek festara daramate neurtitza, "denbora igaraitzeko materia"rantz.

Neurtitza festan kokatzen da ondorio guztiekin. Neurtitza entretenimendurako da; festen osagai bihurtzean zentzu ludikoa ematen zaio. Pilotarien, haizkolarien, dantzarien, irrintzilarien eta abarren artean antolatutako lehiaketak olgeta-iturri dira; testuinguru horretan garatzen den "neurtizlarien gudua" ere, festaren osagai da.

Jakina, neurtitza gozatzearekin harremanetan jartzeak eta festa bere garapen-leku erakitzeko, euskal neurtitzaren ibilbidea fede eta sinismenen transzendentalismotik atera eta eginkizun intranszendentalagotarako bitarteko bihurtzera darama, norbere formazioarako, hezkuntzarako baliagarri zen tresna, ongi igarotzeko tresna izatera igarotzen da, eginkizun serio-tarako erabilitako bitartekoa festarako tramankulu.

Argi eta garbi baiezpeneke ñabarduraren bat edo beste eskatzen dute: XVI-XIX. mendeen artean idatzitako neurtitz oro ez da izan "zerbait doktrina" irakasteko. Baina, era berean, ezin uka daiteke esparru horretan erabili dela batipat.

Bistan denez, d'Abbadieren mezenazgopean ospatutako Lore-Jokoetan, neurtitzaren zentzu ludikoa berreskuratzen dela esatean eta, nolabait, zentzu honetan Etxepareren testigua jasotzen duela esatean, berehala erantsi behar da, ez modu berean. Etxeparek olerki-liburu bat burutu zuen, bertso, poesia solteak besterik ez dira Lore-Jokoetakoak. Bien arteko lotura honako honetara mugatuko genuke: neurtitz idatziaren zentzu ludikoa berreskuratuz, zentzu hau historikoki ahula izan ondotik.

Plazan, jendaurrean, kirol eta folklore-adierazpenekin batera gertatzen da berreskuratze hau: testuinguru jakin batean. Komunikazioak "egokitu" egin behar du bere garapen-koordinadurara eta honek bide herritarrak ibiltzea eskatzen duen.

Bide herritarrak ibiliz festa sortzeko tramankulu bihurtzen da neurtitza. D'Abbadieren mezenazgopean ospatutako Lore-Jokoek, azken batez, garrantzia irabazten dute euskal literaturaren ibilbidearen argitan ikustean: festaren barrutian indartzen du neurtitz idatzia.

20. DARANATZ, J. B.: "Correspondance du Capitaine Duvoisin", 339-340. orr.

21. ETXEPARE, Bernard: *Linguae Vasconum Primitiae*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1995, 79. or.